



**2019ko ABENDUAREN 20ko AGINDUA, ENPLEGUKO ETA GIZARTE POLITIKETAKO
SAILBURUARENA, EUSKAL ENPLEGU SISTEMAREN ETA LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU
ZERBITZUAREN LEGE AURREPROIEKTUA AURREZ ONARTZEKO.**

2019ko azaroaren 28ko Aginduaren bidez, “Euskal Enplegu Sistemaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lege Aurreproiektua” egiteko prozedurari hasiera eman zitzaion .

Idazketa bukatuta, zioen azalpenez, 41 artikulua, xedapen gehigarri bat, xedapen iragankor bat eta bi azken xedapenez osatutako testua proposatzen da.

Abenduaren 22ko 8/2003 Legeak, xedapen orokorrak egiteko prozedurari buruzkoak, 7.1 artikuluan ezartzen duenaren arabera, “xedapen orokorren proiektuak idatzi ondoren, prozedura hasteko agindua eman duen organoak aldeztu aurreko onarpena eman beharko die, dagozkion negoziazio-, entzunaldi- eta kontsulta-izapideak egin aurretik”.

EBAZTEN DUT

LEHENA.- Onartzea Euskal Enplegu Sistemaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Lege Aurreproiektua.

BIGARRENA.- Lege-proiektuaren testua Eusko Legebiltzarrera bidaltzea.

HIRUGARRENA.- Enplegu eta Gizarteratze Zuzendaritzak jarraituko ditu aipatutako dekretua egiteko izapideak, Enpleguko eta Gizarte Politiketako Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 75/2017 Dekretuak xedatutakoarekin bat etorriz.

Vitoria-Gasteizen, 2019ko abenduaren 20an

Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua

BEATRIZ ARTOLAZABAL ALBENIZ

(Elektronikoki sinatua)

***/2019 Lege-aurreproiektua, *(e)ko *(e)koa, Euskal Enplegu Sistemarena eta
Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarena**

ZIOEN ADIERAZPENA

I

Europako Enplegu Estrategiaren helburua da lanpostu gehiago eta hobeak sortzea, eta dituen hiru lehentasunetako bat, berriz, enplegu-maila handiko ekonomia sustatzea.

Europako Enplegu Estrategiak hauek ezartzen ditu, besteak beste, bere ildoen artean: biztanleria aktibo enplegarria areagotzea, enpleguaren kalitatea sustatzea, biztanleria kualifikatzea eta etengabeko ikaskuntza sustatzea, gizarte-inklusioa bultzatzea eta pobrezia-aren aurka borrokatzea, baita laneratzeko ibilbide pertsonalizatuak osatzeko konpetentziak balioztatzeke esparru bat ezartzea ere.

Esparru estrategiko hori aintzat hartuta, Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren lege bat bultzatu behar da, propiotzat hartuko duena Europako estrategia eta bere egingo dituen Europa Batasunean enplegu-arloan dauden itunetan onartutako konpromisoak.

Euskal Autonomia Erkidegoaren gizarte- eta ekonomia-testuinguruak aldaketa nabarmenak izan ditu azken urteetan, eta enplegu-politikan eta lan-merkatuan eragin handia duten joera berriak agertu dira. Joera horiek eragin dute, hain justu, Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren lege hau, baita beraren printzipioak inspiratu ere.

Batetik, eta Europako gainerako herrialdeen antzera, Euskal Autonomia Erkidegoak biztanleriaren zahartze-prozesua bizi du gizartearen arloan. Bilakaera demografiko hori dela eta, gero eta pertsona gehiago ari da lan merkatutik irteten, eta, ondorioz, biztanleria aktiboa murriztuz doa.

Testuinguru ekonomikoari erreparatuta, ikusten da sektore berriak sortzen ari direla, eta bizkor garatu eta eboluzionatzen ari direla. Eta, aldi berean, produkzio-prozesu eta -bitartekoen digitalizazio- eta robotizazio-prozesu bat gertatzen ari da, bere arrisku eta

aukera guztiekin. Horrek agerian jartzen du ezen, ekonomiaren lehiakortasuna areagotze aldera, gero eta jende kualifikatuagoa behar dela, batik bat teknologia berriengatik eta, oro har, ezagutzaren gizarteak duen garapenagatik. Datozen urteetan, lan-testuinguru berri batera egokitu beharko gara, non **ezinbesteko ezagutzak** behar izango baitira, eta prestakuntzak norabide horretan joan beharko du. Joera horrek prozesu garrantzitsuak eragingo ditu hurrengo urteetan, mugimendu ekonomiko horien ondoriozkoak, hala nola konpetentzia berriak eskuratzea, birkualifikatzea eta biztanleria lan-merkatuan birkokatzea.

Oraindik ez da amaitu emakumeak euskal lan-merkatuan sartzeko prozesua, nahiz eta azken hamarkadetan dudarik gabeko aurrerapausoak egin diren. Zifrek segitzen dute informazioa ematen zenbait errealitateri buruz, zeinetan eskatzen baita politika publikoek eta gizarte zibilak esku hartzea, emakumeak lan-merkatuan eta ekonomia- eta enplegu-eremuetan sartzea, garatzea, sustatzea eta mantentzea eragozten duten oztopoak zuzentzen eta ezabatzen segi dezagun.

Ez dira albo batera utzi behar gure Autonomia Erkidegoan nahiz Europako gainerako herrietan identifikatzen diren beste joera batzuk; esaterako, lana duen biztanleriaren mugikortasun gero eta handiagoa, bereziki gazteena, dela estatu-barruan, dela, batik bat, nazioartean. Alderdi hori oso faktore kritikoa da, oso kontuan hartu beharrekoa enplegu-politika definitzean, zeren eta helburua baita gaitasunak, konpetentziak eta konpromiso- eta ekarpen-maila altua dituzten pertsonak geratzea EAEn.

Bestalde, euskal gizartearen anitza da gizarte-kolektiboek dagokienez, eta berezko ezaugarri du aberastasun hori. Baina kolektibo horietako batzuk gizarteratzeko eta laneratzeko zailtasun bereziak dituzte.

Nahiz eta azken urteotan aurrerapenak egin diren araudiaren eta lanaren arloan - besteak beste, pizgarriak diseinatzea laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboek lana lortu eta enpleguan egonkortzeko-, estamentu publikoek jarraitu behar dute zaintzen EAEko biztanle guztiek aukera berberak izan ditzaten lan-merkatuan sartzeko, eta batik bat zaindu behar dituzte laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonak, enplegarritasun-maila txikiagoa dutelako.

Horregatik, ahaleginak egin behar dira prestakuntza-mailaren arabera lan-merkatuko aukeretan dauden aldeak murriztu daitezen, eta zailtasun bereziak dituzten kolektiboek oztopoak ken dakizkien lan-merkatuan sartzeko eta parte hartzeko; izan ere, talde

horietan daude, besteak beste, bazterketa-arriskuan dauden pertsonak edo desgaitasunak dituztenak.

Arestian identifikatutako joerek, oro har, agertoki konplexua erakusten dute. Agertoki horrek, alabaina, enplegatze eta hazteko aukerak sortuko ditu Euskal Autonomia Erkidego osoan, eta indartu egingo ditu azken urteotan egin diren ahaleginak euskal enplegu-sistema moderno eta aurreratu bat, merkatuaren etengabeko bilakaerak dakartzan premiei egokitua, taxutzeko.

Testuinguru horretan, enplegua da, EAEn, gizarteko tresna eratzaile eta integratzaile nagusia.

II

Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren lege honek oinarritzat hartzen du enplegu euskal politikaren unibertsaltasuna eta bereizketarik ezaren bermea. Ildo horretan, enplegu-arloko jarduketek printzipio horiek aplikatuko dituzte enplegarritasuna eta enpleguaren kalitatea hobetuko dituzten zerbitzuak eskaintzeko eta programak garatzeko orduan; hala, lan-merkatuan aukera-berdintasuna sustatuko da, eta enpleguaren arloko eskaintza eta eskaera egokituko, kuantitatiboki eta kualitatiboki.

Enplegu-politikak kontuan izango du langabeei lagundu behar zaiela egoera iragankor hori ahalik eta gutxien luza dadin. Enplegu-politikak, halaber, aurreikusiko du etengabeko prestakuntza bultzatu behar dela, bizialdi osoko ikaskuntzaren bidez eta lanean ari diren pertsonen enpleguaren kalitatearen bidez, eta, edozein kasutan, ahalegin bereziak egingo ditu laneratzeko zailtasun bereziak dituzten pertsonen alde. Era berean, EAEko enplegu-politikaren ikuskerak jasoko du zer langile kualifikatu eta enplegatzaile behar den, lurraldeko produkzio-sarearen lehiakortasuna bermatzeko.

Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren Legeak indarra ematen die euskal enplegu-politika integral eta zeharkako baten oinarriari, eta politika hori jardueren garapen bateratu baten bidez gauzatu behar da, modu koordinatuan eta gainerako politika publikoekin batera. Era berean, ezinbestekoa da erakunde arteko lankidetzak aukera-iturritzat hartzea.

Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren Legeak funtsezko tresna izan nahi du Lanbide berritzeko eta modernizatzeko; horretarako, kualifikazio eta birziklatze

profesionalaren hobekuntza bultzatuko du, baita funtsezkoak diren beste alderdi batzuk ere, hala nola gazteen laneratzea, elkarrizketa soziala eta gizarte-eragileen parte-hartzea eta hori lortzeko ahaleginak; enpresa-erantzukizun soziala; Gizarte Ekonomia; laneko osasuna eta segurtasuna eta berdintasunaren aldeko eta lan-iruzurraren kontrako borroka.

Testuinguru horretan, beharrezkoa da egungo Euskal Enplegu Sistema egituratuko duen lege bat egitea, sistema horren printzipio gidariak ezarri, eta parte hartzen duten eragileen arteko harremanak arautuko dituen eta, ondorioz, Euskal Autonomia Erkidegoan enplegu-politika bateratua garatzea sustatuko duena. Modu horretan, enpleguko politika eta sustapena garatzeko esparru egokia ezartzen lagunduko da.

III

Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren lege hau esparru juridiko eta konpetentzial honetan babesten da:

Konstituzioak 149. artikuluan ezartzen du Estatuak duela lan-legeriaren alorreko eskumen eskusiboa, hargatik eragotzi gabe autonomia-erkidegoetako organoek legeria hori betearaztea: betearazpen-eskumen hori Euskal Autonomia Erkidegoari dagokio, Autonomia Estatutuaren 12. artikuluari jarraikiz.

Hain zuzen ere, Autonomia Estatutuko 12. artikuluko horretako bigarren apartatuan ezartzen da Euskal Autonomia Erkidegoak daukala lan-legeria betearazteko eskumena, bere gain hartuz lan-harremanen inguruan Estatuak gaur egun dituen ahalmenak eta eskumena, eta, halaber, Estatuak lan-legeria betearazteko dituen zerbitzuak antolatze, zuzentze eta gainbegiratzeko ahalmena ere baduela, Estatuaren Goi-ikuskaritzaz bat, lan-baldintzak gizartearen garapen- eta aurrerapen-mailari egokitzen saiatuz eta langileen kualifikazioa eta prestakuntza osoa bultzatuz.

Era berean, Estatutuaren 10. artikuluko zehazten du Autonomia Erkidegoak eskumen eskusiboa duela ekonomiaren bultzapen eta aurrerabidearen eta Euskal Herriko ekintza ekonomikoaren plangintzaren arloan, ekonomiaren antolaketa orokorraren arabera. 9. artikuluko, berriz, ezartzen du ezen euskal botere publikoek, beroriei dagozkien alorretan, bereziki bultzatuko dutela bizitzeko eta lan egiteko baldintzen hobekuntza ekar dezakeen politika, eta neurriak hartuko dituztela enpleguaren hazkundea eta ekonomiaren egonkortasuna sustatzen laguntzeko.

Bestalde, Enpleguaren Legearen Testu Bateginak, zeina urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuak onetsi baitzuen, Enplegu Sistema Nazional bat ezartzen du, deszentralizatua eta Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak eta autonomia-erkidegoetako enpleguko zerbitzu publikoek osatua.

Horrez gain, kontuan izan behar da Konstituzioak Ekonomia Ituna babesten duela, eta haren funtsezko printzipioa jasotzen dela Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuan, zeina abenduaren 18ko 3/1979 Lege Organikoak onartu baitzuen. Euskal Autonomia Erkidegoko Estatutuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde historikoetako erakunde eskudunek aukera dute beren tributu-sistema propioa mantendu, ezarri eta arautzeko.

Ekonomia Ituna da euskal autogobernuko oinarri finantzarioa, zeinak bere gain hartzen baitu subiranotasun fiskala, aukera ematen diona bere baliabide propioekin finantzatzeko Estatuak transferitutako eskumenak. Hori da euskal autogobernuaren singularitate eta espezifikotasun fiskal eta finantzarioa, bere funtzionaltasun guztia proiektatzen baitu konpetentzia transferituak egikaritzeko.

Finantzazio propioa izateak berezitasun propioa eta desberdina ematen digu, estatuko enplegu-politiken gainerako kudeatzaileek ez dutena. Hala, enplegu-politika aktiboetako programa eta zerbitzuak betetzera zuzendutako baliabide ekonomikoak ez datoz Enplegu eta Gizarte Gaietako Konferentzia Sektorialean erabakitzen den funts-banaketatik, gainerako autonomia-erkidegoetan bezala. Izan ere, EAEk urtero portzentaje bat dauka, kupoa kalkulatzeko egozpen-indizeari dagokiona: estatuan zein kostu duten urtero estatu-mailako lan-arloko programek eta jarduketa publikoek, enpleguak eta enplegu eta lanbide-heziketa transferituek, hainbatekoa. Zenbateko hori, berriz, kupotik gutxitzen da.

Azaroaren 5eko 1441/2010 Errege Dekretuaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoari eskualdatu zaizkio eremu honetako eginkizunak eta zerbitzuak: lan-arloko legeria betearaztea lanaren, enpleguaren eta enplegurako lanbide-heziketaren esparruan.

Arau-esparru berri horrek bide eman zuen Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortzeko (urriaren 13ko 3/2011 Legea), eta Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika aktiboak zuzenean kudeatzeko.

Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, bestetik, enplegu-politika eta -planak sartzten ditu udalek beren eskumen propioak gara litzaketan hainbat eremutan, eta lege honek edukia ematen dio aurreikuspen horri.

IV

Enplegu Sistemaren eta Euskal Enplegu Zerbitzuaren Legeak zazpi kapitulu, bi azken xedapen eta xedapen indargabetzaile bat ditu.

I. kapituluak definitzen du zer helburu eta xede dituen lege honek, ekitatearen, efizientziaren, lurralde-orekaren, partaidetzaren, kontsentsuaren eta gardentasunaren printzipioen arabera.

II. kapituluan, berriz, Euskal Enplegu Sistemaren plangintza taxutzen da, garatu beharreko enplegu-politika egikaritzeko, EAEko enplegarritasuna hobetzeari begira.

Lege honen III. kapituluak definitzen du nola osatzen den Euskal Enplegu Sistema eta zein diren haren zuzendaritza-organoak eta gobernamendua.

IV. kapituluan definitzen da zein diren Euskal Enplegu Sistemaren tresnak eta zerbitzuak, eta jasotzen da zein diren sistema barruan sartuko diren eskumen eta zerbitzu guztiak, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuak egikarituko dituenak.

V. kapituluan definitzen dira Euskal Enplegu Sistemako erabiltzaileen eskubideak eta betebeharrak.

Lege honen VI. kapituluan definitzen da Lanbide- Euskal Enplegu Zerbitzuaren araubide berria, Lanbide modernizatzeko eta osorik eraberritzeko lanen jarraibideei jarraikiz; Lanbide bera zuzenbide pribatuko entitate publiko modura konfiguratzeko da, eta horrek aukera emango du Euskal Enplegu Zerbitzuari malgutasun gehiago emateko eta dinamikotasun gehiago eskaintzeko enplegu-politika aktiboak egikaritzeko orduan.

Azkenik, lege honen VII. kapituluak arautzen du Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren langileen araubide juridikoa.

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.- Xedea

1.- Lege honen xedea da Euskal Enplegu Sistema arautzea, eta definitzea zer egitura-, zerbitzu- eta programa-multzo behar diren enplegu-politika sustatu, garatu, planifikatu, koordinatu eta egikaritzeko.

2.- Zehazki, lege honen xedea da:

- a)** EAEko enplegu-sistema antolatzea, haren baliabide guztien koordinazioa eta optimizazioa ziurtatuko duen kalitatezko zerbitzu publiko bat bermatzeko.
- b)** Ezartzea zein den EAEko enplegu-politiken antolamendu-esparrua, pertsonak laneratzeko aukerak hobetzeko zerbitzu eta programak kudeatzeko, enpresen lehiakortasuna hobetzeko, toki-garapena sustatzeko eta, oro har, lan-merkatuaren funtzionamendua hobetzeko.
- c)** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua arautzea Eusko Jaurlaritzako pribatuko entitate publiko modura, zeinak gauzatuko baititu enplegu-politikako eskumenak.
- d)** Pertsonen enplegarritasun-eskubidea bermatzea, ulerturik ezen pertsonak – bereziki enplegu-eskatzaileek– bizitza aktibo guztian zehar izan behar dutela zerbitzu-kartera bat, barnean hartzen dituen, gutxienez, orientazioa, prestakuntza, bitartekaritza eta laguntza; zerbitzu horiek pertsona guztien ezaugarri eta premietara egokituta egongo dira, lagungarri gerta dakien enplegarritasuna hobetzeko, enplegua mantentzeko eta karrera profesionala sustatzeko, lege honek ezartzen duen moduan.
- e)** Elkarlana, lankidetzak eta koordinazioa erraztea, zehazki Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eta Eusko Jaurlaritzan enplegua eta enpresa-kontsolidazioa eta -hazkundera errazteari lotutako politiketako eskumena duten sailen artekoa.
- f)** Bermatzea laneratzeko zerbitzu espezializatu egokiak emango zaizkiela oso egoera kalteberan dauden pertsonen, zerbitzu espezializatu egokiak dutenien.

2. artikulua.- Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren helburua

Euskal Enplegu Sistemaren helburua da lan-merkatu bat egituratzen laguntzea, pertsonen enplegarritasuna modu efizientean sustatzeko, baita enpresa, entitate eta antolakundeen eskakizunei zerbitzua emateko ere, haien premiei erantzungo dieten langileak prestatuz eta, modu horretan, enpresa, entitate eta antolakunde horien lehiakortasuna sustatuz. Horren ondorio zuzen modura, sistemaren azken xedea izango da gizarte- eta lurralde-kohesioa bultzatzea, enplegu duin, egonkor eta kalitatezkoaren eskubidearen garapen integrala sustatuz.

3. artikulua.- Printzipioak

Hauk izango dira Euskal Enplegu Sistemaren printzipioak:

- a) Aukera-berdintasuna, diskriminaziorik eza eta gizarte-kohesioa: pertsonak aukera izan behar dute berdintasun eta diskriminaziorik gabeko baldintzetan iristeko enplegu-sistemak eskaintzen dituen enplegura eta zerbitzuetara, hargatik eragotzi gabe lehentasuna ematea enplegura iristeko zailtasun gehiago duten pertsona eta taldeei.
- b) Lurralde-kohesioa eta –oreka: enplegu-sistemak enplegu-politika sustatu behar du, lurralde bakoitzeko lan-merkatuko ezaugarri eta premietara egokitua, arreta berezia jarritz gutxiago garatutako produkzio-sareak dituzten lurralde-eremuetan. Era berean, sistemak bermatu behar du edozein pertsonak duela irispidea enplegu-politika aktiboetara Euskal Autonomia Erkidegoko lurralde-eremu guztian.
- c) Doakotasuna eta unibertsaltasuna: pertsona eta enpresei doan eman behar zaizkie euskal enplegu-zerbitzuak eskaintzen dituen zerbitzuak, eskumen publikokoak eta funts publikoek finantzatuak, inongo kontraprestaziorik eskatu gabe.
- d) Aktibazioa: enplegu-politikak lortu behar du lan egiteko adinean daudenek lan egitea, funtsezko faktorea baitira sozializatzeko eta autonomia pertsonala eta aukera-berdintasuna lortzeko; horretarako, kontuan izan behar du zer premia izango dituzten lan-merkatuak eta gizarteak orain eta etorkizunean.
- e) Erantzukizun partekatua: funts publikoekin finantzatutako zerbitzuak eta programak eskaintzen dituzten enplegu-sistemako eragileek eta zerbitzu eta

programa horien erabiltzaileek konpromisoa hartzen dute zerbitzu eta programa horien azken helburua eta efikazia bermatzeko.

- f) Egokitzapena eta pertsonalizazioa: Euskal Enplegu Sistemak bultzatzen dituen zerbitzu eta programen helburuek egokituta egon behar dute hala erabiltzaileen ezaugarri eta premietara, prozesu pertsonalizatuak bermatuz, nola enpresen premietara.
- g) Lankidetzaren eta koordinazioa: bermatu beharko da Euskal Enplegu Sistema osatzen duten entitateek lankidetzaren eta modu koordinatuan jardun dezaten, zerbitzu okupazionalak kudeatzeko eta, hala badagokio, planifikatzeko, baita eskura dituzten baliabideen erabilera optimizatzeko ere, bikoiztasunak saihestuz. Berezi sustatu behar da toki-administrazioekin lankidetzaren eta koordinatuta jardutea. Eta, espresuki, hezkuntzako eta ekonomia-sustapeneko eskumenak dituzten sailekin.
- h) Erabilgarritasuna eta inparteketasuna: euskal enplegu-sistemak sustatutako ekimenek jarduketaren integrazioa eta trazabilitatea sustatu behar dute, eta kalitatea, emaitza, eragina, efikazia eta efizientzia ebaluatzeko mekanismoak ere izan behar dituzte.
- i) Osagarritasuna: enplegu-politikak zerbitzu eta programa espezializatuak dira, jardueraren ekonomikoa bultzatu behar dutenak, enplegarritasuna hobetuz, kalitatezko enplegua sortuz eta enpresen jasagarritasuna eta lehiakortasuna bultzatuz. Ildo horretatik, tresna bat dira, zeinak, eremu operatiboan, enpresa, sektore eta lurraldeen plangintza estrategikoa osatu behar baitu, baita beste sail-atal batzuetako gobernu-ekintza ere.
- j) Partaidetza: bermatu behar da enplegu-sistemako entitate guztiek etengabe parte har dezaten, eta koordinazioko eta plangintza bateratuko mekanismoak egituratu daitezken.
- k) Trazabilitatea: jarduketaren eta baliabideei jarraipena egiten zaiela bermatu behar da, enplegu-sistemako funtsezko faktorea baitira.
- l) Gertutasuna: pertsonetikiko eta enpresekiko gertutasuna bermatu behar da, lurraldeko premiak antzeman, eta pertsona eta enpresei zerbitzuak emateko kalitate-tresna modura.

- m) Aniztasuna eta arreta espezializatua: sustatu behar da egoki erantzun dakien pertsona eta talde guztien premiei; horretarako, laguntza-zerbitzu espezializatuak eduki behar dira, eta, interesdunek eskatzen dituztenean, eskaini.
- n) Gizarte-zerbitzuekin lankidetzan aritzea, sektorearteko lana eta enplegu-sistemen eta gizarte-zerbitzuen arteko informazio-kudeaketa partekatua bultzatuz.
- o) Ituntzea: Etengabeko elkarriketa soziala sustatu beharko da Administrazio Publikoaren eta antolakunde enpresarial eta sindikalen artean, gizarte- eta lan-gaietan edo EAEko aurrerapen ekonomikoa indartzeko negoziazio kolektiboan eragiten duten gaietan.
- p) Koherentzia: Enpleguko Euskal Sistema osatzen duten eragileek bermatu beharko dute beren jarduketak koherenteak direla.

II. KAPITULUA

EUSKAL ENPLEGU SISTEMA PLANIFIKATZEA

4. artikulua.- Enplegu-politikak planifikatu, koordinatu eta egikaritzea

1.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak enplegu-politikaren trazabilitatea eta gardentasuna kudeatu, koordinatu, egikaritu eta ezarri behar ditu, lege honetan ezarritako tresna estrategikoen bidez eta tresna operatiboen bidez.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko tresna estrategiko eta operatiboek bermatu behar dute:

- a) Jarduera-sektore eta lurralde guztien ezaugarri eta premietara egokitutako enplegu-politika bat planifikatzea, programatzea, egikaritzea eta ebaluatzea.

- b) Erabiltzaileei modu indibidualizatuan erantzutea Euskal Enplegu Sistema osoan, espediente bakar eta komunaren bidez, zeinean jasoko baitira enplegu-politikarekin lotutako informazio pertsonala eta profesionala, baita erabiltzaileek baliatu ditzaketen prestazioak eta subsidioak ere.
- c) Egiten diren jarduketan jarraipena eta kontrola egitea, emaitzen trazabilitatea eta ebaluazioa bermatzeko efizientzia- eta inpaktu-terminotan.
- d) Informazio-sistema amankomun bat edukitzea, gardena, irisgarria eta koordinatua.

3.- Langabeak, enpleguak eta egoitza EAEn duten enpresak joko dira enplegu-politikaren onuraduntzat.

4.- Enplegu-politikak, bere diseinuan eta kudeaketa-ereduan, kontuan hartu beharko du zein den bere jardun-eremua, tokikoa ala eskualdekoa, eta zein diren lurraldearen berezitasun ekonomikoak; modu horretan, enplegua sortzeko eremu ezberdinetan egiten diren ekimenak lagundu eta sustatu ahal izango ditu.

5.- Tresna hauen bidez planifikatu eta egikarituko da enplegu-politika:

- a) Enpleguaren Euskal Estrategia
- b) Enplegu Plan Estrategikoa
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Plan Estrategikoa
- d) Enplegu-toki- eta eskualde-planak

5. artikulua.- Enpleguaren Euskal Estrategia

1. Enpleguaren Euskal Estrategia da Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika planifikatu eta koordinatzeko esparru orokorra, urte anitzekoa; hargatik eragotzi gabe ezartzen diren berrikuste- eta ebaluazio-sistemak.

2. Eusko Jaurlaritzan enplegu-toki- eskumenak esleituta dituen sailak prestatzen du Enpleguaren Euskal Estrategia proiektua, partaidetza-prozesu bat jarraitu, eta Euskal Enplegu Sistemako Kontseilu Orokorrak txostena eman ostean.

6. artikulua.- Enpleguaren Plan Estrategikoa

1. Enpleguaren Plan Estrategikoaren helburua da: zehaztea zer helburu dituen Enpleguaren Euskal Estrategiak hainbat urtetarako, eta azaltzea zer zerbitzu eta programa garatuko dituzten Enpleguaren Euskal Sistemaren barruko erakundeek, eta zer adierazle erabiliko diren plan estrategikoa jarraitu, ebaluatu eta finantzatzeko, plana bera jarraitu eta kontrolatzeko ezarritako adierazleen ondorioz.
2. Eusko Jaurlaritzan enpleguaren arloan eskumena duen sailak prestatuko du Enpleguaren Plan Estrategikoa.

7. artikulua. - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Plan Estrategikoa

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak prestatuko du bere plan estrategikoa, eta haren helburua izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Enpleguaren Plan Estrategikoa kudeatzea eta egoki egikaritzea. Beraz, plan estrategiko horren edukiak bat etorri beharko du Enpleguaren Plan Estrategikoarekin eta Enpleguaren Euskal Estrategiarekin, betiere aurrekontu-nahikotasunean oinarrituta eta jarraipen eta ebaluaziorako erregelamenduz jarraitu beharreko elementuak ezarrita. Plan hori ezartzeko, aurrekontu nahikoa izan behar da, eta arau bidez jasotzen diren jarraipen-eta ebaluazio-elementuak ezarri.

8. artikulua.- Enplegu-toki- eta eskualde-planak

1. Udaletako, eskualdeetako edo enplegu-politiketan ezarritako beste eremu jakin batzuetako urteko jarduketaren planak dira, toki-entitateek garatu eta finantzatu beharrekoak. Haien edukiak bat etorri beharko du Enpleguaren Euskal Estrategiarekin, Enpleguaren Plan Estrategikoarekin eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren Plan Estrategikoarekin.
2. Lurralde-kontseiluek egingo dituzte plan horiek, Euskal Enplegu Sistemaren eragileen parte-hartzearekin, eta udalerriek, eskualdeek edo udalerri-elkarteek onartuko dituzte, kasuan kasu dagokionaren arabera; betiere, planak betetzeko finantzabide nahikoa dagoela ziurtatuta eta aurretik Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren aldeko txostena jasota, zeinak bermatuko baitu plan estrategikoak koordinatuta daudela eta ez dagoela bikoiztasunik.
3. Eusko Jaurlaritzan enplegu-eskumenak dituen saileko titularren aginduz arautuko da zein den toki- eta eskualde-planak egiteko edukia eta prozedura, baita zein izango den lurralde-kontseiluen osaera eta funtzionamendua ere.

III. KAPITULUA

EUSKAL ENPLEGU-SISTEMAREN OSAERA ETA GOBERNAMENDUA

9. artikulua - Euskal Enplegu Sistemaren kontzeptua eta osaera

1.- Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politikak sustatu eta garatzeko behar den egitura-, entitate-, zerbitzu- eta programa-multzoa da Euskal Enplegu Sistema.

2. Honako eragile hauek osatuko dute Euskal Enplegu Sistema:

- a) Eusko Jaurlaritza. Bereziki, enplegu, lan, hezkuntza eta ekonomia-garapeneko eskumenak dituzten sailak.
- b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua.
- c) Foru-aldundiak.
- d) Udaletako eta udalez gaindiko toki-entitateak.
- e) Enpresak, barne harturik kooperatiba-sozietateak eta lan-sozietateak.
- f) Euskal Autonomia Erkidegoko antolakunde sindikal eta enpresarialak.
- g) Prestakuntza-entitateak.
- h) Unibertsitateak.
- i) Enplegu-agentziak.
- j) Laneratzeko enpresak eta enplegu-zentro bereziak.
- k) Gizarte-ekimeneko entitateak, irabazi asmorik gabekoak, alde batera utzita zer izaera juridikoa duten.

10. artikulua. - Euskal Enplegu Sistemako Kontseilu Orokorra

1. Euskal Enplegu Sistemako Kontseilu Orokorra kontsulta- eta partaidetza-organo bat da, enplegu-politika eta orientabide bereko beste politika batzuk sortzeko eratua.

2. Jaurlaritzak izendatuko ditu kontseilukideak, eta honako hauek izango dira:

- a) Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzan enpleguaren arloan eskumena duen saileko titularra izango da. Lege honen erregelamendu-garapenak zehaztuko du zein diren haren eginkizunak.

- b) Sei bokal, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrek proposatuak.
- c) Lau bokal, EAEn ordezkariarik handiena duten antolakunde sindikalek proposatuak.
- d) Lau bokal, Euskadin ordezkariarik handiena duten sektoreen arteko antolakunde enpresarialen ordezkari gisa.
- e) Bokal bat, Euskadiko Kooperatiben Konfederazioak proposatua.
- f) Hiru bokal, foru-aldundiek proposatuak.
- g) Bi bokal, Eudelek proposatuak.

3. Hauek izango dira Euskal Enplegu Sistemako Kontseilu Orokorren eginkizunak:

- a) Aurretiaz ematea Enpleguaren Euskal Estrategiari buruzko txostena.
- b) Enplegu-politikei buruzko ebaluazioaren emaitza ezagutzea eta hari buruzko txostena egitea.
- c) Aztertzea lan-merkatuaren egungo egoerari buruzko informazioa, baita lan-merkatuko prospekzioari eta prospektibari buruzkoa ere.
- d) Aztertzea zer enplegu-politika definitu eta aplikatzen diren Europan eta Estatuan.
- e) Ekarpenak egitea enpleguarekin lotutako xedapen orokorrei buruzko proiektuei buruz.
- f) Lanbideri ekimenak proposatzea enplegu-politikei buruz.
- g) Gomendioak ematea Euskal Enplegu Sistema hobetzeko.

11. artikulua.- Euskal Enplegu Sistemaren gobernamendua

1. Eusko Jaurlaritzaren eskumena da Euskal Autonomia Erkidegoko enplegu-politika garatzea, arlo horretako lan-legeria egikaritzuz, eta, bereziki, enplegu-politikak planifikatu, antolatu eta kudeatzea. Enpleguko eskumenak dituen sailaren bidez eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko entitate publikoaren bidez egikarituko du hori, foru- eta toki-entitateekin batera elkarlanean eta lankidetzan, baita Euskal Enplegu Sistemako beste entitate publiko edo pribaturekin batera ere.

2. Euskal Enplegu Sistemaren gobernamentua, Eusko Jaurlaritzan enpleguko eskumena duen sailaren eta Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gidaritzapean, enplegu-politikan parte hartzen duten gizarte-eragileen eta administrazioen parte-hartzearen eta kontsultaren inguruan egituratuko da, Euskal Enplegu Sistemako Kontseilu Nagusiaren barruan, eta arreta berezia eskainiko zaie antolakunde sindikalek eta enpresa-elkarteek Elkarrizketa Sozialeko esparru orokorretan proposatutako eta, hala badagokio, adostutako gaiei.

3. Enpleguaren Euskal Estrategiaren eta Enpleguaren Plan Estrategikoaren esparruan koordinatu eta elkarlanean arituko dira enpleguko eskumena duen saila, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua eta Eusko Jaurlaritzaren barnean enpleguan eragiten duten eskumenak egikaritu edo garatzen dituzten sailak, baita foru-aldundiak eta EAEko udalak ere.

4. Enpleguan eragin zuzena duten politika publikoak martxan jartzeko, horren berri izan beharko dute hala Eusko Jaurlaritzan enpleguko eskumena duen sailak nola lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak.

Ondorio horietarako, baldin eta Eusko Jaurlaritzako sailek, foru-aldundiek eta EAEko toki-entitateek beren eskumenak egikaritzean asmorik badute enpleguan eragin zuzena izan dezakeen programa, jarduketa edo neurriren bat garatzeko, aurretik horren berri eman beharko diote Eusko Jaurlaritzan enpleguko eskumenak dituen sailari (Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari), eta hark baloratuko du ea beren artean koordinatu edo elkarlanean jardun behar duten edo neurri osagarriak hartu behar dituzten, edo egokia den halakorik egitea.

5. Dirulaguntzak eman ahal izango dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuarekin elkarlanean aritzeko programak garatzen eta enplegu-zerbitzuak ematen; administrazio-kontratuak ere egin ahal izango dira, edo hitzarmenak sinatu, edo Zuzenbidearen arabera beste forma batzuk erabili.

Enplegurako bitartekaritza-, orientazio- eta prestakuntza-zerbitzuak emateko, ekintza itunduko akordioetara jo ahal izango da, Eusko Jaurlaritzak ezartzen dituen baldintzetan.

Edozein kasutan, entitate laguntzaileak hautatzeko orduan, publikotasun, gardentasun, konkurrentzia eta diskriminaziorik ezaren printzipioak errespetatu beharko dira, eta, lehentasuna ezartzeko, hainbat irizpide izango da kontuan: zerbitzua ematean eskaintzen den kalitatea eta laneratzeari dagokionez lortzen diren emaitzak.

IV. KAPITULUA

EUSKAL ENPLEGU-SISTEMAREN TRESNAK

12. - artikulua.- Enplegu-politikaren tresnak

Honako hauek izango dira Euskal Enplegu Sistemaren tresnak:

- a) Lan-bitartekaritza.
- b) Enplegu-politika aktiboak.
- c) Enplegu-politika aktiboak, babes ekonomikoa eta diru-sarrerak bermatzeko dirulaguntzak koordinatzea langabeziari aurre egiteko.

13. artikulua. - Lan-bitartekaritza

Lan-bitartekaritza zerbitzu publikoa da, zeinak bere baitan jasotzen baititu lan-eskaintzak eta -eskariak lotzeko ekintzak, hala langileei beren ezaugarrietara egokitutako enplegua emateko, nola enpresei beren eskakizunetara eta premietara ondoen egokitzen diren langileak eskaintzeko.

14. artikulua. - Enplegu-politika aktiboak

1.- Lan-eremuko enplegua lortzeko zerbitzu- eta programa-multzo bat dira enplegu-politika aktiboak: orientazio- eta enplegu-programak, lanbide-hezietako programak, eta abar. Zerbitzu eta programa horien helburua da langabeak norbere kontura edo inoren kontura enplegura iristeko aukerak hobetzea, enplegua mantentzea eta lanean ari direnek sustapen profesionala izatea, baita enpresa-ekimena eta gizarte-ekonomia sustatzea ere.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak egikaritutako dituen enplegu-politika aktiboek zerbitzu hauek eskainiko dituzte:

- a) Orientazio profesionala.
- b) Enplegua lortzeko prestakuntza, kualifikazioa eta birkualifikazioa.
- c) Enplegu-ematea, laneratzea eta enpresei aholkularitza ematea.
- d) Aholkularitza ematea hala autoenplegurako eta ekintzailatzarako nola enpresak sortzeko.

- e) Enplegua bultzatzea edo sustatzea.
- f) Prospekzio eta prospektiba estrategikoa.

15. artikulua.- Orientazio profesionala

1.- Orientazio profesionalak barnean jasotzen du: informazio-, laguntza-, motibazio- eta aholkularitza- zerbitzu eta -programa pertsonalizatuak eskaintzea lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituzten pertsona guztiei, batez ere desabantaila-egoeran dauden edo prestakuntza-eskaintzari buruzko informaziorik ez duten taldeei eta talde kalteberekoei izan eta lanean edo gizartean baztertuta daudenei, bai eta orientazioa eskaintzea ere enplegu-politikan gizonen eta emakumeen arteko berdintasunerantz jotzeko eta EAEko hizkuntza bi ofizialak ezagutzen ez dituzten atzeritarrei laguntzeko.

2.- Orientazio-zerbitzuak, berriz, honako hauek jasoko ditu: diagnostiko indibidualizatua eta enplegurako ibilbide pertsonalizatuaren diseinua, lan-ibilbidea gartzeko laguntza pertsonalizatua eta jarduera betetzeko konpromisoa betetzea, baita lan-merkatuari buruzko aholkularitza eta informazioa eta beste edozein laguntza tekniko osagarri ere.

16. artikulua.- Enplegurako prestakuntza, kualifikazioa eta birkualifikazioa

1.- Enplegurako lanbide-heziketaren helburua da hainbat konpetentzia lortzea eta garatzea, pertsonak garapen pertsonala, profesionala eta soziala izan dezaten eta, modu horretan, enplegua lortzeko aukera gehiago izan dezaten.

2.- Zerbitzu hori emateko, aintzakotzat hartuko dira: gardentasun-, kalitate-, efikazia- eta efizientzia-printzipioak; langileek lanbide-heziketa jasotzeko duten eskubidea eta prestakuntza hori doan eta baldintza berberetan lortu ahal izateko eskubidea, edozein izanik ere langileen adina, generoa, egoera pertsonala edo laborala; prestakuntza-prozesu guztietan informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzeko eta arreta berezia jartzea prestakuntza-mailarik baxuenak dituzten taldeetan.

3.- Prospekzioarekin eta garapen ekonomikoarekin koordinatuta eskaini beharko da enplegurako lanbide-heziketa.

4.- Enplegurako prestakuntza- eta kualifikazio-zerbitzuak honako jarduera hauek gauzatuko ditu, Euskadiko lanbide-heziketaren araudiak ezartzen dituen jarraibideei jarraikiz:

- a) Enplegurako lanbide-heziketa programatzea, enpresen eta erabiltzaileen premien arabera.
- b) Prestakuntzaren kalitatea kontrolatu, jarraitu eta ebaluatzea.
- c) Lan-esperientziaren bidez lortutako konpetentzia profesionalak ebaluatu, aitortu eta egiaztatzea.
- d) Prestakuntza-kontua mantendu eta eguneratzea: langilearen prestakuntza-historia identifikatuko da, eta prestakuntza-kontuan jasoko, Gizarte Segurantzako afiliazio-zenbakiari lotuta; era berean, etengabe eguneratuko da, aplikatzekoa den araudiak ezartzen duenaren arabera.
- e) Lanbide Heziketako zentroak eta entitateak inskribatu, egiaztatu eta aukeratzea.

17. artikulua.- Enplegua emateko eta enpresei aholku emateko zerbitzuak

1. Enplegua emateko zerbitzuaren helburua izango da: enplegu-eskaintzak identifikatu eta kudeatzea, eta eskaintzetara ondoen egokitzen diren erabiltzaileei lotzea, haien profil eta konpetentzien arabera. Hori dena, enplegu-emateari beren eskakizunetarako eta beharretarako egokienak diren langileak eskaintzeko eta kontratazio-prozesuei buruzko informazioa emateko, bai eta langileei enplegu-eskaintza egokiak eta eskuragarriak eskuratzeko aukera emateko ere.

2.- Enplegua emateko zerbitzuak jarduera hauek biltzen ditu:

- Lan-eskaintzak kudeatzea, eskaintzak eta eskariak uztartuz.
- Informazioa eta aholkularitza eskaintzea, aktibazioari eta enpresetako kontratazioari eta laneratzeari lotutako laguntza-neurriei buruz.

18. artikulua.- Autoenplegua, ekintzailatza eta enpresak sortzeko aholkularitza-zerbitzua

1.- Autoenplegua eta ekintzailatza sortzeko zerbitzuak Eusko Jaurlaritzaren eta gainerako administrazioen ekintzailatza-planak lagundu eta sustatuko ditu, baita beste ekimen ekintzatzaile eta enplegu- eta autoenplegu-sortzaile batzuk ere, eta haiei ondoen egokitzen zaizkien erabiltzaileei lotuko dizkiete, duten profilaren eta konpetentzien arabera, arreta berezia jarritz lan autonomoan, gizarte-ekonomian eta toki-garapen ekonomikoaren dinamizazioan.

2.- Autoenplegua, ekintzailetza eta enpresak sortzeko zerbitzuak informazio eta laguntza kualifikatuko jarduerak gauzatuko ditu hala autoenplegua sustatu nahi duten pertsonentzat nola enplegua sortzea ekarriko duen jarduera produktibo bat hasi nahi dutenentzat; era berean, jasoko du gizarte-ekonomia eta talde-ekintzailetza sustatzea, eta ekimen ekintzaileei eta autoenplegukoei edo enpresak sortzekoei aholku ematea eta kontratazioa sustatzea.

19. artikulua.- Enplegua sustatzea eta bultzatzea

Honako helburu hauek dagozkie enplegua sustatzen duten zerbitzu, programa, estrategia eta jarduera guztiei:

- a) Sustatzea langabeek lan-esperientzia lan-ingurune erreal batean eskura dezaten eta laneratzeko beharrezko den kualifikazioa lor dezaten, batez ere lan- edo gizarte-bazterketa jasateko arrisku handiena duten kolektiboen kasuan.
- b) Sustatzea pertsona batzuek, hain justu koiunturalki edo estrukturaliki laneratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboetakoek edo laguntza berezia behar dutenek, lan-merkatura iristeko aukera berberak izan ditzaten eta bertan gera daitezen; horretarako, lanpostu jakin batzuetara edo merkatu babestuetara iristeko tresnak, ibilbideak edo laguntza-jarduketak garatuko dira.
- c) Sustatzea bizitza pertsonalaren, familiarraren eta lanekoaren arteko kontziliazioa, emakumeen eta gizonen erantzukizun partekatua, diskriminaziorik eza eta genero-etenak desagiteko ekintza positiboak.
- d) Enpleguaren kalitatea hobetzea, batez ere lan kaskarrak dituzten pertsonen begira.

20. artikulua.- Prospekzio eta prospektiba estrategikoa

Prospekzio eta prospektiba estrategikoa da harremanak modu aktiboan kudeatzea, enplegu eta prestakuntzako oraingo eta etorkizuneko premiak identifikatzeko, horren barnean harturik enpresen, antolamenduen eta administrazio publikoen enplegua sortzeko aukerak identifikatu eta sustatzeko zerbitzuak eta programak, baita enplegua mantendu eta sortzekoak eta kualifikazio pertsonala hobetzekoak ere.

21. artikulua.- Euskal Enplegu Sistemaren tresnak ebaluatzea

1. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak Euskal Enplegu Sistemako tresnen ebaluazio integrala egingo du; horretarako, oinarritzat hartuko ditu jarduera- eta emaitza-

adierazleak, eta, apurka-apurka, inpaktu-, asebetetze-, efizientzia- eta efikazia- adierazleak gehituko ditu.

2. Pertsonen, eragile inplikatuena eta gizarte osoaren eskura jarriko dira ebaluazio horien emaitzak.

3. Enplegurako prestakuntzari dagokionez, etengabe ebaluatzeko mekanismoak ezarriko dira, honetan lagunduko dutenak: ezagutzen zer eragin duen egindako prestakuntzak enplegua lortzeko edo mantentzeko orduan; hobetzen hala enpresen lehiakortasuna nola langileen kualifikazioa; prestakuntza-ekintzak lan-merkatuko premietara egokitzen, eta erabilitako baliabide ekonomiko eta bitartekoen efizientzia ezagutzen.

Era berean, ebaluatuko da zer kalitate eta emaitza lortzen duen Prestakuntza Entitateen Euskal Erregistroan inskribatutako prestakuntza-entitateek emandako prestakuntzak.

V. KAPITULUA

EUSKAL ENPLEGU-SISTEMAN PARTE HARTZEN DUTEN ENTITATEEN ETA HAREN ERABILTZAILAILEEN ESKUBIDEAK ETA BETEBEHARRAK

22. artikulua.- Euskal Enplegu Sistemaren erabiltzaileen eskubideak

Euskal Enplegu Sistemak eskubide hauek bermatu behar dizkie zerbitzuen erabiltzaileei:

- a) Doan sartzea eta parte hartzea Euskal Enplegu Sistemaren funts publikoekin finantzatutako zerbitzu eta programa guztietara, enplegarritasuna eta laneratzea hobetzeko.
- b) Arreta egoki eta pertsonalizatua izateko eskubidea.
- c) Enplegarritasunerako eskubidea.
- d) Dagozkien eskubide eta betebeharrei buruzko informazio egokia.

- e) Edozein zerbitzu edo programari buruzko informazio nahikoa, egiazkoa eta ulergarria jasotzeko eskubidea.
- f) Norberaren intimitaterako eskubidea.
- g) Ematen diren okupazio-zerbitzuekin lotutako informazioaren konfidentzialtasuna.
- h) Ekitatea pertsonen tratuan, lehentasuna emanez enplegua lortzeko zailtasun gehien dituzten pertsonen eta kolektiboen.
- i) Datuak babesteko indarrean dagoen araudian xedatutakoaren arabera tratatzea erabiltzaileen datu pertsonalak.
- j) Erreklamazio eta salaketetarako mekanismo eta tresnen berri jakiteko eta horiek eskura edukitzeko eskubidea.

23. artikulua.- Euskal Enplegu Sisteman parte hartzen duten entitateen eskubideak

Euskal Enplegu Sistemak honako eskubide hauek bermatu behar dizkie barnean dituen entitateei:

- a) Zerbitzu-karterari buruzko informazio orokorra eta espezifikoa.
- b) Euskal Enplegu Sistemaren tresna operatiboetarako irispidea, aplikatzekoa den araudiak ezarritako mugekin.
- c) Parte hartzea enplegu-politika garatzen eta egikaritzen Enplegu Plan Estrategikoan ezarritako lehentasunen eta helburuen esparruan.

24. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

- a) Euskal Enplegu Sistemarekin lankidetzan aritzea, eskatutako dokumentazioa, datuak eta informazioa emanez, eta agertzea, hala eskatzen zaienean eskaini ahal zaizkien zerbitzu eta programak direla-eta.
- b) Gainerako erabiltzaileen duintasuna eta eskubideak errespetatzea, baita arreta ematen dieten profesionalena ere.
- c) Araudiak ezartzen duen beste edozein betebeharrak betetzea.

25. artikulua.- Euskal Enplegu Sistemaren parte hartzen duten entitateen betebeharrak

Euskal Enplegu Sistemaren parte hartzen duten entitateek betebeharrak hauek dituzte:

- a) Euskal Enplegu Sistemaren printzipio gidarien arabera jardutea.
- b) Baliabideen eraginkortasuna, efizientzia eta inpaktua bermatzeko ezarritako jarraipen-, audiotoretza- eta kontrol-sistemak izatea.
- c) Egiten zaizkien aldizkako eta ausazko kontrol eta ikuskapenen mende jartzea, beharrezkoak baitira aplikatzen zaizkien lan-, administrazio-, ekonomia- eta egitura-arauak betetzen direla egiaztatzeko.
- d) Euskal Enplegu Sistemaren koordinazio-, lankidetzak- eta ebaluazio-tresnen mende jartzea ematen dituzten zerbitzuak eta gauzatzen dituzten programak.
- e) Ondo ikusteko moduan adieraztea Euskal Enplegu Sistemaren barruan daudela.
- f) Estatistika-interesa duten eta Euskal Enplegu Sistemaren ebaluazio-sistema hobetzeko beharrezkoak diren datuak ematea.
- g) Datu pertsonalak babesteko araudiak ezarritakoa betetzea, batez ere datuak lagatzeari eta erabiltzaileei dagozkien eskubideei dagokienez.
- h) Ziurtatzea betetzen direla erabiltzaileen eskubideak, lege honen 22. artikuluan jasotakoak.

VI. KAPITULUA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUA

26. artikulua - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren izaera

1.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua sortzen da, eta zuzenbide pribatuko erakunde publiko gisa eratzen da, nortasun juridiko propioa eta bere helburuak betetzeko jarduteko gaitasun osoa dituen, enplegu-politikaren arloan eskumena duen Eusko Jaurlaritzako sailari atxikita.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gidari izango dira: zuzenbide pribatuko erakunde publikoei aplika dakizkiekeen lege-xedapenek ezarritakoa, xedapen honetan ezarritako berezitasunek izan ezik, bai eta haien estatutuek ere. Estatutu horiek Eusko

Jaurlaritzaren dekretu bidez onartuko dira, enpleguko eskumena duen sailak proposatuta. Erakundeak aplikagarri zaizkion zuzenbide zibileko, merkataritza-zuzenbideko eta lan-zuzenbideko arauen mende jartzen du bere jarduera, administrazio-ahalak baliatzen dituenen izan ezik; kasu horretan, administrazio publikoen administrazio-prozedura erkidea arautzen duen araudia eta izaera publikoko gainerako araudi orokorra eta sektoriala aplikatuko zaizkio.

3.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua Eusko Jaurlaritzan enpleguaren arloan eskumena duen sailari atxikita geratuko da eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren enplegu-politikaren tresna gisa jardutea izango du helburu.

27. artikulua - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburuak

1.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburua da: enplegu egonkor eta kalitatezko eskubidea erabat garatzen laguntzea; langileen enplegarritasuna efizientziaz bermatzen lagunduko duen lan-merkatuaren garapenaren alde lan egitea; enpresen eskakizunetara egokitutako langile-premiak asetzea, bai eta gizartearen eta lurraldearen kohesioari laguntzea ere; betiere, Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenen eremuan esleitzen zaion enplegu-politika kudeatuz eta lan-arloko legeria egikaritzuz.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jarduketak irizpide zehatz batzuk beteko ditu, hala nola: gardentasunaren, aukera-berdintasunaren eta bere jarduketetan inor ez diskriminatzearen printzipioak; beste politika publikoekiko koherentzia eta arrazionalizazioa bilatzea beti, eta etengabe saiatzea bere funtzionamenduaren efikazia eta efizientzia lortzen; tresnak, baliabideak eta teknologiak modernizatzea; tokian tokiko errealitatera egokitzea; bere zerbitzuetan kalitatea eta arreta pertsonalizatua eskaintzea; bere funtzio publikoak doakoak izatea eta etengabeko elkarrizketa izatea sektorearteko eremuan ordezkaritza handiena duten antolakunde enpresarial eta sindikalekin.

3.- Era berean, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren helburua da bere zerbitzuen erabiltzaileak artatzeko sistema modernizatzea eta informazioaren eta komunikazioaren teknologia berriak sartzea.

Ondorio horietarako, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak sistema biometrikoak erabiliko ditu bere zerbitzuen erabiltzaileak edo prestazioen onuradunak identifikatzeko, datuak babesteko legeriatik eratorritako zehaztapenak betez.

28. artikulua - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak

Hauek dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumen-esparruan:

- a)** Proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoaren eskumenerako enpleguaren, enplegurako prestakuntzaren eta laneratzearen arloko politika publikoen antolamendu eta plangintza orokorra, sektoriala eta lurraldekoa.
- b)** Enpleguko eta enplegurako prestakuntzako programak kudeatzea, kontuan hartuta Lanbide Heziketako Euskal Plana eta Lanbide Heziketako Koordinazio Organo Gorenak ezarritako irizpideak, nola autoenplegua eta enpresen sorrera sustatzekoak ere.
- c)** Gizarte-ekonomiako programekin lankidetzan aritzea, enplegu egonkorra sortzeko.
- d)** Enplegua sortzen duten toki-ekimenei laguntzeko programak diseinatzea, enpleguaren aldeko toki-itunen garapena sustatuz toki-entitateekiko lankidetzan.
- e)** Europar Batasunaren Eures Sareari (Europako Enplegu Zerbitzuak) dagozkion eginkizunak gauzatzea.
- f)** Arlo honetan dagozkion eginkizunak egikaritzea: lan-merkatuaren beharren prospekzioa eta informazioa, lanbide-profilen bilakaera, eskakizun profesionalak eta lan-orientazioa.
- g)** Lan-bitartekaritza kudeatzea eta enplegu-eskatzaileen erregistroa eramatea, baita komunikazio hauek jasotzea ere: lan-kontratuak, kontratuen luzapenak eta bukaerak eta haiei lotutako eginkizunak.
- h)** Langabeziaren prestazioak eta subsidioak kudeatzea.
- i)** Betekizunak betetzen diren egiaztatzea, eta beharrezko diren kontrol- eta ikuskaritza-jarduketak egitea Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan diharduten enplegu-agentziei dagokienez.
- j)** Enpleguaren eta prestakuntzaren arloko lankidetzak hitzarmenak sinatzea.
- k)** Enplegu-programa bereziak egitea laneratzeko eta gizarteratzeko zailtasun bereziak dituzten kolektiboentzat.

- l)** Komunikazioak erregistratzea, bai enpresek aurkeztutako lan-kontratuen edukiari buruzkoak, baita, lan-araudian aurreikusitako kasuetan, lan-kontratu horien amaierari buruzkoak ere.
- m)** Enplegu-eskatzaileen izen-ematearekin eta erregistroarekin zerikusia duten eginkizunak betetzea.
- n)** Egiaztatzea ea betetzen diren enplegu-eskatzaile gisa langabeziako prestazioen eskatzaileek edo onuradunek dituzten betebeharrak, eta, hala badagokio, ez-betetzeen berri ematea prestazioen entitate kudeatzaileari.
- o)** Zehatzeko ahala egikaritzea enpleguari eta langabeziari buruzko arloetan, legeria espezifikoan ezarritako moduan.
- p)** Saiakuntza-proiektuak kudeatzea, bereziki europar eremukoak, enplegu-arloko zerbitzuen eskaintzan ikuspegi eta irtenbide berriak garatzea ahalbidetu dezaketenak.
- q)** Parte hartzeko bideak ezartzea sektorearteko eremuan ordezkaritza handiena duten antolakunde enpresarial eta sindikalekin, bai eta gizarte-ekimenarekin eta erabiltzaileekin ere.
- r)** Laguntza teknikoa eskaintzea enplegurako prestakuntza-ekintzak egikaritzeko.
- s)** Lankidetzaz-entitateak homologatzeko eta aitortzeko irizpideak ezartzea, bai eta haien funtzionamendua gainbegiratu eta kontrolatzea ere.
- t)** Urteko memoria egitea.
- u)** Diru-sarrerak bermatzeko prestazio ekonomikoak izapidetzea arlo hori erregulatzen duen legeriak ezarritako moduan.
- v)** Bermatzea ezen herritarrei berek aukeratutako hizkuntza ofizialean erantzungo zaiela Enplegu Zerbitzuaren zerbitzuak erabiltzen dituztenean.
- w)** Enplegu-politika egikaritzeko eskumena duten administrazio publikoekin koordinatzea.
- x)** Laguntzak eta dirulaguntzak ematea, dirulaguntzen deialdiak onartzea eta izapidetzea barne, Eusko Jaurlaritzak horretarako ematen dituen arauen arabera.

- y) Merkataritza-trafikoari dagozkion mota guztietako ekonomia- eta finantza-jarduerak egitea, era guztietako kontratuak egitea eta zerbitzuak ematea, aplikatu beharreko xedapenek ezartzen dituzten mugak alde batera utzi gabe.
- z) Merkataritza-sozietateen eraketan parte hartzea edo dagoeneko eratuta dauden sozietateetan eta irabazi-asmorik gabeko erakundeetan parte hartzea, Eusko Jaurlaritzaren alde aurreko baimenarekin.
- aa) Administrazio publikoekin eta enpresa eta erakunde publiko eta pribatuekin hitzarmenak sinatzea.
- bb) Lankidetzeta-formula espezifikoak ezartzea eta harreman-sare bat sortzea enpresa eta erakunde publiko eta pribatuekin.
- cc) Txostenak egitea hala eskatzen dioten Administrazioko organoei, enpleguaren arloan eskumena duen sailaren bidez.
- dd) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa ordezkatzeko enpleguarekin lotutako foro eta gaietan, Eusko Jaurlaritzak edo arlo horretan eskumena duen sailak esleitzen dizkion zereginak.
- ee) Beste zernahi eginkizun garatzea, enplegu- eta laneratze-politiken arloan legeek edo Eusko Jaurlaritzak egozten dizkietenak edo Estatuko Gobernuak transferitzen, eskuordetzen edo gomendatzen dizkionak.

29. artikulua - Koordinazioa eta lankidetzeta

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak elkarlanerako eta lankidetzarako akordioak egin ahal izango ditu edozein pertsona juridikorekin, publiko zein pribaturekin, haren helburuak eta jarduerak Eskualdeko Enplegu Zerbitzuarentzat interesa dutenean enpleguaren, lanbide-heziketaren, orientazioaren, lan-bitartekaritzaren eta laneratzearen arloetan, betiere sustatuz sektorearteko eremuan ordezkaritza handiena duten antolakunde enpresarial eta sindikalekiko lankidetzeta eta parte-hartzea.

30. artikulua - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren organoak

Hauetara dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gobernu-organak:

- a) Lehendakaritza.
- b) Administrazio Kontseilua.

c) Zuzendaritza Nagusia.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuek garatu egingo dute lege honetan organismo horren egitura organiko eta funtzionalari buruz aurreikusitakoa, eta, horren arabera, funtzionamendu-araubidea ezarriko dute, baita helburuak hobeto betetzeko beharrezkoa den beste edozein alderdi ere.

31. artikulua - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseilua

1.- Administrazio Kontseilua da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren gobernu-organo goren, eta hamabost kidek osatzen dute.

Kide hauek osatzen dute Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseilua:

- a) Lehendakaria: Eusko Jaurlaritzan enpleguko eskumena duen saileko titularra.
- b) Lehendakariordea: Eusko Jaurlaritzan enpleguko eskumena duen sailburuordetzaren titularra.
- c) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko zuzendari nagusia.
- d) Bi bokal, zeinak Eusko Jaurlaritzak izendatuko baititu eta, hala badagokio, kargutik kenduko baititu, enpleguko eskumena duen sailak proposatuta.
- e) Bost bokal, EAEn ordezkariarik handiena duten sindikatuen ordezkari gisa.
- f) Bost bokal, EAEn ordezkariarik handiena duten sektorearteko antolakunde enpresarialen ordezkari gisa.

3.- Bertaratutako kideek emandako botoen gehiengo soilez hartuko dira Administrazio Kontseiluaren erabakiak, eta beharrezkoa izango da Administrazioa ordezkatzeko dutenen aldeko botoa. Lehendakariak kalitatezko botoa izango du berdinketak desagiteko.

Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak betetzeko erabakirik hartzea behin eta berriro ezinezko gertatzen denean eta erabaki horiek atzeratzerik ez dagoenean, Administrazio Kontseiluko lehendakariak, behin beharra eta presa justifikatu ondoren, salbuespen gisa erabaki ahal izango du dena delako gaiak ezohiko botazioa egitea ; halako moldez non hartu ahal izango baita hartu beharreko erabakia; horretako, aski izango da Administrazioa ordezkatzeko duten kideen aldeko botoa.

32. artikulua. Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren eginkizunak

Hauek dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren eginkizunak:

- a)** Zuzenbide pribatuko entitate publikoaren aurrekontu-aurreproiektua, kontuak eta urteko memoria onartzea.
- b)** Zuzenbide pribatuko entitate publikoaren plan orokorrak eta jarduera-programak onartzea.
- c)** Enplegu Plan Estrategikoa diseinatu eta onartzea, eta haren jarraipena eta ebaluazioa egitea.
- d)** Organismo publiko eta pribatu, unibertsitate, enpresa edo partikularrekiko lankidetza-hitzarmenak onartzea enplegu eta prestakuntza alorrean.
- e)** Enplegu eta prestakuntza alorreko laguntza-deialdiak egitea.
- f)** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren jarduketa-irizpideak prestatzea.
- g)** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren kudeaketa kontrolatu eta ebaluatzea, eta haren helburuak hobeto betetzeko beharrezko iritzitako neurriak proposatzea.
- h)** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren antolamenduari eta funtzionamenduari buruzko Erregelamenduaren onarpena proposatzea.
- i)** Onestea gai jakinetarako batzorde teknikoak edo lan-taldeak sortzea, eta haien osaera eta eginkizunak erabakitzea.
- j)** Zuzendaritza-karguen izendapenaren eta kargu-uzteen berri ematea.
- k)** Organismoaren interes bereziak gobernatu eta administratzeko bestelako ahalmenak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko beste organo bati berariaz eman ez zaizkionak.
- l)** Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuetan ezartzen direnak.

33. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Lehendakaritza

Hauek dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren Lehendakaritzaren eginkizunak:

- a) Zuzenbide pribatuko entitate publikoaren ordezkari izatea.
- b) Administrazio Kontseiluaren bilerak deitzea eta bileretako buru izatea.
- c) Lankidetzeta-hitzaumenak sinatzea zuzenbide pribatuko entitate publikoaren izenean, entitatearen eginkizunei jarraikiz haren izenean adosten direnak.
- d) Beste eginkizun batzuk, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak eskatzen dizkionak edo Administrazio Kontseiluak eskuordetzen dizkionak.

34. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia eta haren eginkizunak

1.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko Zuzendaritza Nagusia Gobernu Kontseiluaren dekretu-bidez izendatuko da, enpleguko eskumena duen saileko titullarrak proposatuta.

2.- Hauek dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren zuzendari nagusiaren eginkizunak:

- a) Aurrekontu-aurreproiektua egitea eta zuzenbide pribatuko entitate publikoko Administrazio Kontseiluari proposatzea.
- b) Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua zuzentzea eta Administrazio Kontseiluaren akordioak egikaritu eta betearaztea.
- c) Kontseiluari proposatzea zer hitzaumen egin behar den zuzenbide pribatuko entitate publikoaren eginkizunak garatzeko.
- d) Kontratuak egitea Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren berezko gaietan, eta administrazio publikoen kontratuei buruzko legeriak kontratazio-organoei ematen dizkieten ahalmen eta eskumen guztiak egikaritzea.
- e) Ente publikoaren zerbitzuak zuzendu eta gainbegiratzea, haren xedeak betetzeko, eta langileen zuzendaritza egikaritzea.

- f) Gastu- eta ordainketa-aginduak ematea, hargatik eragotzi gabe estatutuetan zehazten diren kasuetan Administrazio Kontseiluak eman behar duen alde zuzeneko baimena.
- g) Zuzenbide pribatuko entitate publikoaren urteko jarduera-memoria egitea, bai eta Administrazio Kontseiluak eska diezaiokeen beste edozein txosten ere.
- h) Bestelako eginkizunak, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuek agintzen dizkionak edo Administrazio Kontseiluak eskuordetzen dizkionak.

35. artikulua.- Egitura organikoa

Lege honetan aurreikusita ez dagoen guztian, Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren estatutuek erregulatuko dituzte: gobernu-organoen kideen eginkizunak, osaera eta izendapena, baita zuzenbide pribatuko entitate publikoaren zerbitzuen egitura organikoa eta funtzionala, funtzionamendu-araubidea eta entitatearen egoitza ere.

36. artikulua.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua azkentzea eta likidatzea

- 1.- Administrazio Kontseiluak proposatu beharko du zuzenbide pribatuko entitate publikoa desagitea, eta Eusko Legebiltzarrak onetsiko du, lege bidez .
- 2.- Dagokion arauak ezarriko du zer neurri ezarri ahal izango zaizkien zuzenbide pribatuko entitate publikoko langileei, langile horiek arautzen dituen legeriaren esparruan.
- 3.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzua azkentzen denean, haren ondarea Euskal Autonomia Erkidegoaren eskuetara pasatuko da.

VII. KAPITULUA

LANBIDE-EUSKAL ENPLEGU ZERBITZUAREN ARAUBIDEA: JURIDIKOA, EKONOMIKO-FINANTZARIOA ETA LANGILEENA

37. artikulua.- Araubide juridikoa

Azaroaren 11ko 1/1997 Legegintza Dekretuko III. tituluko II. kapituluan ezarritakoa izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren araubide juridikoa –dekretu horrek Euskadiko Ogasun Nagusiaren Antolarauei buruzko Legearen Testu Bategina onartu zuen.

38. artikulua.- Ekonomia- eta aurrekontu-araubidea

1.- *Zuzenbide pribatuko entitate publikoei* ezartzen zaien araubidea ezarriko da aurrekontuei, arlo ekonomiko-finantzarioari, kontrol ekonomikoari eta, oro har, EAEko Ogasunarenak diren gaiei dagokienez.

2.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuak urtero egin eta onartuko du dagokion aurrekontu-aurreproiektua, eta Eusko Jaurlaritzari bidaliko dio, bereizita sar dadin Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorretan.

39. artikulua.- Baliabide ekonomikoak

Hauek dira Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren baliabide ekonomikoak:

- a) Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorren kontura urtero esleitzen zaizkion kopuruak.
- b) Tasak, prezio publikoak eta ondasunen eta eskubideen ondoriozko era guztietako produktuak eta errentak, eta bere jarduerak egikaritzearen ondoriozko diru-sarrera arruntak eta ezohikoak, barne harturik hala *zuzenbide pribatuko entitate publikoaren* aurrekontuaren kargura emandako dirulaguntzen onuradunek betebeharrak ez betetzeagatik izapidetutako itzulketa-prozedurei dagozkien diru-sarrera publikoak nola zehapenetatik datozenak.
- c) Legeak baimenduta jaso ditzakeen ohiko eta ezohiko diru-sarrerak.
- d) Eman zaizkion dirulaguntza, ekarpen eta dohaintzak.
- e) Izendatzen zaion bestelako edozein baliabide.

40. artikulua. Ondare- eta kontratazio-araubidea

1.- Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren titulartasuneko ondasun eta eskubideei eta hari atxikita daudenei aplikatu beharreko araubidea bat dator azaroaren 6ko 2/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskadiko Ondareari buruzko Legearen Testu Bateginean ezarritakoarekin.

2.- Kontratazio publikoari buruzko araudian ezarritakoa izango da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuaren eginkizunak betetzeko beharrezkoak diren ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeko eta eskuratzeko araubide orokorra.

41. artikulua. - Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuko langileak

1.- Zuzenbide pribatuko erakunde publikoaren zerbitzura dauden langileak, esleitutako eginkizunen izaeraren arabera, horretarako kontratatutako lan-kontratuko langileak eta euskal administrazio publikoetako kidego eta eskaletako funtzionarioak izango dira.

Nolanahi ere, ahal publikoak erabiltzea dakarten lanpostuak funtzionarioentzat gordeko dira, eta funtzionario horiek Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren funtzio publikoa arautzen duen araudiaren mende egongo dira.

2.- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzuari dagokio bere lanpostuetara iristeko araubidea zehaztea, hautaketa-proben baldintzak eta ezaugarriak zehaztea, bai eta lanpostuak betetzeko eta lanbide-sustapenerako prozeduren deialdia, kudeaketa eta ebazpena zehaztea ere, publizitate-, berdintasun-, merezimendu- eta gaitasun-printzipioen arabera.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Lehenena.- Lege honen bidez, Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua administrazio-erakunde autonomoa azkentzen da.

Bigarrenena.- Lanbide – Euskal Enplegu Zerbitzua zuzenbide pribatuko erakunde publikoa subrogatuta geratuko da iraungitako erakunde autonomoaren eskubide eta betebeharrak guztietan. Baliabide materialak eta giza baliabideak dagozkien antolamendu-erregelamenduek zehazten dutenaren arabera atxikiko dira.

XEDAPEN IRAGANKORRA

Bakarrena.- Harik eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremuan langabezia-prestazioak eta -subsidioak kudeatzeko Estatuko Enplegu Zerbitzu Publikoak esleituta dituen baliabide materialak eta giza baliabideak transferitu arte, ez da beteko lege honek gai horri buruz aurreikusten duena.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Lehena.- Indargabetuta geratzen da Lanbide-Euskal Enplegu Zerbitzuari buruzko urriaren 13ko 3/2011 Legea, bai eta lege honetan ezarritakoaren aurka dauden maila bereko edo beheragoko xedapen guztiak ere.

Beraz, Euskadiko herritar guztiek, partikularrek eta agintariek lege hau zaindu eta zainarazi beharra daukate. Hala agintzen diet.

AZKEN XEDAPENAK

Lehena.- Gobernu Kontseiluari baimena ematen zaio lege hau garatzeko behar diren xedapenak emateko eta dagozkion neurriak hartzeko.

Bigarrena.- Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu, eta hurrengo egunean sartuko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko *.....aren(a).

Lehendakaria,
IÑIGO URKULLU RENTERIA